



Esp. kodea: 2015SAPL0012

Gaia: PLENOA 2015-10-13
Hasiera eguna: 2015/10/06

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2015eko urriaren 13a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2015eko irailaren 17a egindako bileraren akta onartu du.

2.- Debagoieneko Mankomunitateko kirol batzordeko ordezkaria izendatzeko proposamena

Udalbatzak aho batez erabaki du Mankomunitateko Kirol Batzordeko udal ordezkaria Ander Garay Zabaleta izatea.

3.- AGITAX; 2016eko taxi zerbitzuaren tarifen proposamena

Udalbatzak aho batez erabaki du AGITAX-en proposamena, zeinaren bidez 2015eko taxi tarifak 2016rako mantentzen diren..

4.- 2014ko Kontu Orokorraren espedientea onartzeko proposamena

Udalbatzak aho batez onartu du.

5.- 2016 urterako Ordenantza Fiskalak ontzat emateko proposamena.

Udalbatzak, 2016. Urterako ordenantza fiskalen aldaketa onartu du, PNV-EAJ-k aurkeztutako emendakinak aldatua izan dena (*etxebizitzaren erabilera duten ondasunak, obiko egoitza ez direnean aplikatzen zaien %50eko gainkargua kentzea*), aldeko 10 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeetako zinegotziak) eta kontrako 9 botorekin, (BILDU, BALAIKE eta IRABAZI udal taldeetako zinegotziak).

6.- EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako adierazpen instituzionala, pintaden inguruan.

Adierazpen instituzionala onartua geratu da, aldeko 10 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeetako zinegotziak) eta 9 abstentziorekin (BALEIKE taldeko zinegotzien abstentzioa eta EH BILDU eta IRABAZI udal taldeetako zinegotziak ez bozkatzearen ondorioz).

7.- Emakumeen mundu martxaren inguruko adierazpen instituzionala.

Aho batez onartu da EMMk aurkeztutako adierazpen instituzional proposamena.

8.- Alkatetzak onartutako ebazpenen berri hartzea

Udalbatzak berri hartu du.



Esp. kodea: 2015SAPL0012

Gaia: PLENOA 2015-10-13
Hasiera eguna: 2015/10/06

Arrasaten, 2015eko urriaren 13a

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta